

LARREATIK DATOR NOTIZIA**Liburu baten karietara**

Julen Urkiza historialari karmeldarrak urrats bat gehiago eman digu oraingo liburu honekin¹. Larreako komentuz ari da; baina, liburuko gaia tokiko “anekdota” hutsean hil zitekeena, prepezioz landutako ikerlana izan denez, balio zabaleko lana bilakatu da, hau da, Larreako komentuz diharduela, etengabe Euskal Herri osoko monasterio eta komentuen historialarientzako iradokizunez betetako argitalpena da hau.

Ez da Urkizak egin duen gisa honetako lehenengo monografia, orain hogeitaz eskaini baitzigun Markinako karmeldarrei zegokiena². Zeregin berean ibilita nagoenez, eta nabilenez, jakinaren gainean esan dezaket eredugarria dela liburua, oso Ordenaren barrutik egin eta, era berean, oso Euskal Herritik begiratu. Balio metodologiko serioak dituela uste dut, alor honetako euskal historia ezagutzeko.

¹ Urkiza, J., 2012, Los carmelitas de Larrea. Tres siglos de vida e historia (1712-2012). Larrea: Ediciones El Carmen. 832 orrialde.

² Urkiza, J. 1992, Karmeldarrak Markinan (1691-1991). Historia eta agiriak. Larrea-Zornotza: El Carmen (Karmel). Patxi Uribarrenek euskaraz jarrita. 936 orrialde. Ez da hemen lekuz kanpo geratuko azken aldian kaleratutako beste hau gogoratzea: Unzueta, A., Los carmelitas en Donostia. Cien años de historia. Donostia: Ediciones El Carmen.

JULEN URKIZA

LOS CARMELITAS EN LARREA



**TRES SIGLOS DE VIDA E HISTORIA
(1712-2012)**

Komentuen monografia historiko hauek ez dira, ez Urkizarengan eta ez karmeldarrek beren euskal historia egitean, toki-kotasun hertsia batean eginak. Aitzitik, agerian dago Probintzia Erlijioso osoari (eta, beraz, Euskal Hegoalde osoari eskaintzen ari diren arreta). Gogora bitez, adibidez, Probintziaren historia orokorraz argitaratutakoak, gaztelaniaz lehenengo³ eta euskaraz bestea⁴. Bi argitalpen hauek, beste gabe, Euskal Herriko Institutu Erlijiosoen Historietan osotasunik orokorrena dutenak dira (betiere, erremediorik gabe, Euskal Hegoaldera mugatuak izan arren). Oraingoz ez dago, nik dakidanez, hain epe luzeko eta Euskal Hegoaldea osorik hartzen duen beste Historia argitaraturik⁵, saio laburrak egon badira ere⁶.

Beste gisa batean komentu karmeldarren monografia hauek, baliatu dituzten iturri aberatsengatik eta ikerlanei eman zaien eduki-egituragatik, balio erantsi berri bat dakartela uste dut, gu-rean ia inoiz osotasun horrekin egin ez dena, nire ezagueran.

Artxibo-iturriena da alderik deigarrienetakoa, hau da, nola liburuan baieztapen bakoitzari bere iturria eman ohi dion idazleak. Lehendik ohituta bagauzka ere, azpimarratzea merezi du

³ Urkiza, J.; Unzueta, A.; Fdz. de Mendiola, A., 2005, Provincia carmelitana de San Joaquín de Navarra. Carmelitas en Euskal Herria (siglos XIII-XX). Vitoria-Gasteiz: Ediciones El Carmen. 1.012 orrialde. Eta eremu zabal berean eman behar dira: Unzueta, A.; Izpura, L. M., 2001, Catálogo de los religiosos carmelitas descalzos de la Provincia de San Joaquín de Navarra (1868-2000). Roma: Teresianum.

⁴ Urkiza, J.; Baraiazarra, L., 2010, Karmeldarrak Euskal Herrian. Nafarroako San Joakim karmeldar Probintzia (XIII-XX. mendeak). Markina-Xemein: Ediciones El Carmen (*Karmel*).

⁵ Nabaria da hutsune hori jesulagunen artean (halako euskal historiografia lana burutu zuen Ordena batean: Henao, Moret, etab.); frantziskotarrek, beren artxibo zaharrak XIX. mendean galduta, zailtasun handiak dituzte, nahiz eta Uribe eta Solaguren lan maisuak hor dauden, *Homenaje* deituarekin batera); eliz Zuzenbidearen ikuspuntutik, Urkirik eman zigun klaretarren historia orokorra: Urkiri, T., 1985, Provincia claretiana de Euzkal-Erria. Notas histórico-canónicas de su formación. Tolosa: Autor-editor.

⁶ Arantzazuko Kongresuan bildutako idazlanen artean, adibidez: Intxausti, J. (ed.), 2003, Euskal Herriko Erlijiosoen Historia. Arantzazu: efa.



horrek. Oraingo ekarpenak bi sostengu on ditu azpian: batetik, Ordenak, Probintziak eta Komentu karmeldarrek zaindu duten iturriekiko ardura, agiri-ondare erraldoia txukun biltzeraino, eta, bestetik, Urkizak berak eginda daukan ahalegin pertsonala (Markinakoaz eskaini zigun argitalpena da horren lekuko eta, zer esanik ez, epe mugatu bati eskaini dion agiri-bilduma handia⁷.

Tradizio beneditarreko zenbait monasterio nafarrek egokie-ra berriak izan ditu azken hamarkadetako historiografian, eta monasterioen eraikuntza historikoa argiago ikusi ahal izan dugu (L. J. Fortún-ek Leire-ren ondasun-ondareari eskainian, adibidez)⁸; baina horren antzeko lanei bi muga nabari ikusten dizkiet: batez ere historiaren alde sozio-ekonomikoa hartu dute aintzakotzat, monasterioko barne-bizitza itzalpean edo gertatzen zitzaien bitartean, eta Erregimen Zaharreko historiak dira.

Aitzitik, Markinako karmeldarrenean bezala orain Larreako honetan ikuspegi zabalago batean dabil historia, Esklaustrazio ondoren izandako loraldiari, zegokion leku zabala emanaz (1876-2012), izan ere karmeldarren (eta oro har, Ordena Erlijiosoen) garairik jasoena hauxe izan baita Euskal Herrian, hemen geurean eta karmeldarretan erbesterako egon den hedapenean (Portugal, Amerika, edo Indian, adibidez).

Monasterio eta komentuek (eta are gehiago tokikoak ez ezik Probintzietako zerbitzuak ere eraman behar izan dituztenean) beren eraikin eta ondare materiala nahitaez eratu behar izan dituzte, Larrean eliza, komentu-etxea, ikastetxeak eta abar. Eskeko Ordenen artean monasterioen lur-sail handiak baino komentuetako baratza apalak eta urtean zeharreko limosna-eskeia izan dira fraideen sostengua, Larreako honetan ere ikus daitekeenez.

⁷ Urkiza, J., 2007, Reimplantación del Carmelo Teresiano masculino en España. Documentación y correspondencia epistolar de los fundadores (1867-1882). Roma: Teresianum (4 lbk.).

⁸ Fortún, L. J., 1993, Leire, un señorío monástico en Navarra (siglos IX-XIX). Pamplona: Gobierno de Navarra.



Fundazio uneko eskriturek (1712, 1724, 1900-1901), ondoren burututako obrek (1725-1727, 1767, 1899-1900, 1970-1980), Esklaustrazioen ondoko eginbideek (1813, 1823, 1846, 1865, 1915) eta komentu-elizen jabetza berreskuratzea (1980) izan dira Larrean karmeldarrei eta beren bertako ekimenei segurtasun juridikoak eman dizkietenak. Oro har, aberastasunak dira, baina bertako fraideentzat sostengua eta bertatik eskaintzen diren zerbitzuen mesedetan jarriak. Ez dute zer ikusirik garai bateko monasterio handietako “jaurerri ekonomikoekin”.

Baina ekonomiaz ari naizela, Eskeko Ordenetan pisuko zerikusi ekonomikoa ez ezik zeresan sozial nabaria izan dezakeen limosna-eskearena aipatu nahi dut. Badu horrek lekurik Larreako honetan ere (128-134. or.). Urkizak dioen bezala, “komentuko ekonomiaren hau oso eremu zabala da”, eta gehiegi ez luzatzearren edo, adibide jakin batzuk ematen dizkigu (1770 ingurukoak, eta gastu-sarrera orokorretan 1766-1830 tarteko zenbait datatakoak).

Komentu-inguruko eskualdeak limosna-eskeak bere barruti baimendua izan ohi zuen (Larrearena ezaguna dugu), eta eskearen egokiera hori zen komentua herritarrekin nolako harremanetan zegoen ere erakuts zezakeen abagunea. Eskeak, horrela, hurbiltasun sozialak eta fraideekiko (des)estimua zenbatekoa zen adieraz ditzake (abagune horietako bestela datu sozio-ekonomikoak baztertu gabe, noski: lehorreak, uzta txarrak, etab.).

Euskal Herriko komentuen limosna-eskeen emaitzak, serie jarraituetan bilduta, uste dut zinez esanahitsuak izango liratekeela, eliz historiako alde hori ezagutzeko, noski, baina baita euskal gizartea bera osotasunean ezagutzeko ere. Hortaz, eskueran dituen artxibo eta ezagutzarekin, ez legoke Urkiza norabide honetan saio on bat egiteko abiapunturik txarrean.



Dakidanez, gure artean inoiz egin gabeko ikerlana izango litzateke hori.

Komentuaren “barrukotasuna”, bere fraide-bizimoduekin, erakunde erlijiosoari dagozkion fraidearte, agintari eta arauuekin, bizitzak dituen aldarte on eta eskasagoekin bildu eta azalduta dago Larreako monografia honetan. Etorkizunean, hone-lako gure errealitateak jaso beharko dituen historialariak (egin kontu komentu gehienak desagertzera doazela abiada bizian) liburu honetan Eskola ona izango dute, edo komentuak oso barrutik ezagutzeko aukera, behintzat. Lehen sarrera-urratsa erraztuko diete honelako lanek.

Larreako liburu hau eskuetara etorri zaidanean, berehala joan naiz komentutik gizarterako hedapen historikoa nola jaso duen begiratzera. Sakramentuak, predikua, liturgia, etxe barruko arauak eta abar nahitaezkoak izan ohi dira honelako mikro-historietan, baina ez da hain samurra izaten komentuek sortu ohi zituzten kanpoko gizarte-sareak zenbatu eta herritarrek osatutako hori nolakoa zen ezagutzera ematea.

Larreako komentuaz diharduen liburu hau hiru atal nagusitan banatu du autoreak. Lehenengo biak elkarren jarraian denboraren arabera emanda daude: sortzetik Esklaustrazioetara arte (1712-1868), eta gero izanberrikuntza abiarazi zenetik gure egunak arte (1876-2012). Etxe barruko eta kanpoko unean uneko gertakariek daramate atal honetako azalpena.

Hirugarren atala, aurreko bietako funtsezko jardueren deskribapen xeheagoa da, hau da, komentu izaerari begira egina, aurretik gaingiroki aipatuak izan diren bizitza-eremu nagusiak patxada hobez emateko asmoarekin: fraideen etxeko bizi-moldeak, otoitz-bizitza, komentuko eta kanpoko beren pastoralak, herritarrekin batera sortu eta hazitako elkarteak (Karmengo Amaren Kofradia, Hirugarren Ordena, jaiera berezien hedapena, etab.), komentuaren ondoan sortutako ekimen berriak

(Gogo-Jardunen Etxea, Ikastetxea). Esan beharra dago azken mende eta laurdena ageri dela liburuan zehazkiago erakutsita.

Biziki interesgarria da Karmengo Kofradiaren eta Hirugarren Ordena karmeldarraren historia. Luzaron nahiz beti klausura hertsiko monasterioek ez bezala (kartusiarrek, nabarmenkiago), XIII. mendean hasita Eskeko Ordenen komentuek laster sortu eta eratu zituzten herritar laikoen elkarteak, Etxearen eta Fraideartearen inguruan bazkideen atxikimendu librez antolatutako harreman-sareak.

Euskal Herrian ere horrela gertatu zen Ordena ezberdinetan, garai batzuetan hamar milaka lagun biltzeraino. Elkarte hauen Euskal Herriko historia, modu oso eta bateratuan egiteko dago, eta komentuen berena bezain interesgarria gertatuko da euskal gizarte osoaren iragana ezagutzeko.

Dagoeneko, fraideen prediku-testuen analisiak sortu du ikertzaileen interesik, eta aitzina jarraitu beharko du horrek, besteak beste mentalitateen historia ezagut dezagun. Horrekin batera, eliz elkarte laiko horiena ez da gutxiago begiratzeko: egin kontu, Urkizaren kalkuluen arabera, 94.000 kofraditar karmeldarren herrietako izen-zerrendak artxiboetan daudela emanda (442-493. or.)⁹. Hona eginkizun dagoen ikerlan bat, karmeldarren euskal komentu guztietako kofradia eta elkarleen historia.

Estimatzekoa da euskal kulturako hainbat ekimenen historia arretaz jaso izana, talde eta norbanako askoren nondik norakoak ematen zaizkigula, Larreakoaz gain neurri handi batean Probintzia karmeldarraren iragana ere azalduz eta gure egunak artekoa aintzakotzat hartuta.

9 Urkiza 2012: 451: "Si sumamos los cofrades de los casi dos siglos de historia [1776-1960] hallamos unos 94.000 cofrades registrados, que recibieron el escapulario [de la Cofradía del Carmen, bajo la guía del convento de Lareal]".

XVIII eta XIX. mende gorabeheratsuek tokiko komentuak nola harrapatu zituzten ikusteko parada ematen du Historia honek: gerra eta politika ezberdinek gogor jo zuten Ordena eta Probintzia Erlijiosoa, eta Esklaustrazio orokorrak ez zuen barkatu (1833-1839). Larreari ere bere ordua iritsi zitzaion, 1839ko urriaren 1ean. Ondoko urteak fraide sakabanatuenak izan ziren, mende-laurden bat eta gehiagoan (173-176. or.)¹⁰.

Desamortizazioan Esklaustrazioarekin itxitako komentuen ondasunak, “Bienes Nacionales” izendatuak, ez ziren iritsi beti enkanteraino, eta hau izan zen Larreako kasua, eliza-komentuen jabe, jatorriz eta zaindari gisa, larreatarren leinukoak baitziren: 1846an Epaitegiek berauetako bati ezagutu zioten jabetasuna (176-182. or.). Epaiak erraztasun berriak sortu zituen karmeldar esklaustratuek Larreako fraidearte biziberri zezaten, nahiz eta lege-formaltasunik gabea izan horretarako ekimena. Badakigu, legeen ingurumarian eta inguruabarrek laga zuten heinean, batzuetan Euskal Herriko fraideak saiatu zirela zenbait lagunarte eratzen. Hori gertatu zen Larrean ere, eta 1840ko hamarkadatik 1876a arte, albiste solteek diotenez sarri ageri dira karmeldarrak Larrean.

Izanberrikuntzaren ondoko historia (1876...) zinez berria da, eta harritzekoa, Probintziaren gunen nagusietakoa gertatu baitzen Larreako hau: ia 2.000 fraidegai pasatu ziren hango Nobiziategitik, euskal herritarrek eta erbestekoak. Euskal Lurralde ezberdinen ekarpena ondoko laukian ikus daiteke: herrialdez herrialde eta hiru epetan banatuta, hauek dira 1875-1968.etan ditugun datuak, guztiak 1.404 laguneko kopurua osatzen dutela (429-433. or.):

10 Karmeldarren Esklaustrazioaz ik.: Urkiza/Unzueta/Fz. Mendiola 2005: 188-190; Lizaso Tirapu, M. A., 2003, “El conflicto personal de los carmelitas vascos en la Exclaustración” in: Intxausti 2003: II, 733-746.

LARREAKO NOBIZIOAK (1875-1968: 1.404 euskal herritar)

<i>Urteak</i>	<i>Araba</i>	<i>Bizkaia</i>	<i>Gipuzkoa</i>	<i>Nafarroa</i>
1875-1889	15	123	22	26
1890-1927	81	237	62	139
1928-1968	94	194	150	261
Orotara	190	554	234	426

Hau dena Euskal Herriak bizi izan zuen fraide-mojen goral-diaren parte da (1875-1970): adibidez, Nobiziategitik pasatuta, jesulagun izanak inoiz baino gehiago izan ziren Lagundi Berrian (1814-2000 arte edo: 4.102), eta 1881-1993.etan 2.590 frantziskotar euskal herritar zenbatu izan dira, Arantzazuko Probintzian eta Estatuko beste Probintzia frantziskotarretan. Karmeldarrena ere uztaldi horren barruan dago, beste hainbat Institutu Erlijosoren artean.

Historia hau ez da lorpen eta arrakasten historia bakarrik, aldarte txar eta zitalak hor daude, ezinak ere bai, mota guztietako estualdiak, erbestealdiak, Gerra Zibileko itsumena, hildako eta presoak, batzuetan lekukotasun garratzak (Aita Roman Urtiagaren hilketakoa, e. b.), etab.

Liburuaren bukaeran, argazkien galeria aberatsak indar adierazgarria du irakurlearentzat, ikonografia historiko-artistiko ikusteko, lanera bildu izan diren lankideen aurpegiak eta taldeak ezagutzeko, garai bateko jarduera pastorelei irudia emateko, Larreako fraideartearen tamaina erreparatzeko, Gerra Zibileko ez-ohiko argazkiak gordetzeko.

Historia-mota honetarako eredu ona dela uste duk Urkizak Larreako komentuari eskaini diona, iturriak xeheki ustiatu di-tuelako, eta ikuspuntu anitzetatik begiratu. Historialarion esker ona merezi du honek.

Joseba Intxausti.
Donostia, 2012-05-31